


Nola eman behar genuke euskaraz *lentes progresivas* / *verres progressifs*,
erabileremu teknikoan, optikan esaterako?



Lente ala leiar?

Hiztegi Batuak *leiar* hobesten du:

lente Heg. h. *leiar*

leiar 1 Opt. 'gutxienez alde bat konkaboa edo konbexua duen beirakia'. **2** ...

“Heg.” laburdurak adierazten du *lente* hitza Hegoaldean bakarrik erabiltzen dela, eta haren alboko “h” horrek “leiar” hobesten dela euskara batuan.



Lente ala leiar?

Erizaintzako Hiztegiak definizio hau dakar:

Leiar: iz. Disko-formako pieza, bi aldeetatik edo alde batetik kurbatua, ahurra nahiz ganbila, kristalezkoa, edo bestelako gai garden batez egina. Argia era kontrolatuan desbideratzen du. Funtzio asko ditu: tamaina handiagoko irudiak sortu, argia norabide jakin batean zuzendu, eta abar. *ES:* lente *FR:* Lentille *EN:* Lens



Baina gaztelaniazko “lente” guztiak
ez dira *leiar* euskaraz.

 *Dejó los lentes sobre la mesa.*

Kasu horretan, “lentes” = “anteojos”; beraz,
“betaurrekoak” euskaraz.

 *Mahai gainean utzi zituen betaurrekoak.*



Eta "progresibo"?



progresibo

Hiztegi Batuak ez dakar hitz hori. Bai, ordea, *Zehazki* hiztegiak, *Harluxet* entziklopediak eta gainerako hiztegi gehienek.

Izan ere, mailegatzeko zenbait baldintza betetzen ditu ‘progresibo’ hitzak:

1. Iparraldeko eta Hegoaldeko euskaldunek uler dezaketen hitza da.
2. Nazioarteko hitza da.

fr: **progressif**; es: **progresivo**; en: **progressive**



BERAZ:

LEIAR PROGRESIBOAK



leiar progresiboak

“Euskalterm”ek jaso du termino hori:

- ☐ eu leiar progresibo
lente progresibo
- ☐ es lente progresiva
- ☐ fr verre progressif



leiar progresiboak

Hona, beraz, adibide batzuk:

- ◆ Leiar progresiboak gertuko eta urruneko ikusmenerako balio du.
- ◆ Ikusmen argia edukitzeko, leiar progresiboak dira aukerarik onena.



Horiek horrela, nola emango zenituzke euskaraz honako hitz eta termino hauek?

- lentillas progresivas, lentilles progressifs, progressive lens
- distrofia progresiva, dystrophie progressif, progressive dystrophie
- impuestos progresivos, impôts progressifs, progressive taxes
- rock progresivo, rock progressif, progressive rock

Pentsatu datorren asterako!!

